

# URDAZUBI ETA IRURITA





## EGITARAUA

### MAIATZAK 13, ASTEAZKENA

**20:00etan** txiupinazoa eta ezkila jotzea plazan aperitifia ttiki batekin. **21:30ean** herri afaria Montxo erretegian herriko musikariek alaiturik.

dantza taldearekin. **16:30ean** haurrentzako jokoak. **18:00etan** bertso poteoa Joanes Illarregi eta Miren Artetxe bertsolariekin. **21:30ean** paella jatea plazan. **Ondotik**, Holako erromeria taldearekin dantzaldia.

### MAIATZAK 14, ORTZEGUNA,

**11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** aperitifia Sarako Zazpiak Bat euskal

### MAIATZAK 15, ORTZIRALEA

**11:30ean** haurrendako Conquis erronka. **14:00etan** Ugarana emakume elkartekoen bazkaria eta gazte bazkaria.



Trikitilarien saioa bestetan. UTZITAKOA

**LA KOSKA**  
JATETXEA

*ongi pasa bestak!!*

948 599 042 · URDAX



**Faustino ETXABE tailerrak**

Autoen konponketa

☎ 948 599 038

ZUGARRAMURDI

*Besta on batzuk pasa!*

**Bazteretxea**  
benta

JANARI-DENDA

Tel: 948 599048

Ongi pasa bestak!!

URDAZUBI

*Ongi pasa bestak!*

**Montxo**  
JATETXEA · ERRETEGIA

*Tradizioa, historia eta gastronomia*

[asadormontxo.com](http://asadormontxo.com)



Axular karrika, 12  
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)  
+34 848 85 00 21  
[info@asadormontxo.com](mailto:info@asadormontxo.com)



**ZUBI ONDOA**  
OSTATUA  
AUTOZERBITZUA  
OROIGARRIAK  
*Ongi pasa bestak!*  
(0034) 948 599 041  
**DANTXARINEA**



**IRIARTEA  
BENTA**  
Autozerbitzua · Ostalua · Larrua...  
DANTXARINEA · Urdazubi · T. 948 599 049 · ventairiartea@hotmail.es



**IRIGOIENEA**  
948 599 267 · URDAZUBI  
www.irigoiena.com · reservas@irigoiena.com



**indianoabaita**  
ostalua  
barostatuapartamentosrurales  
*Pasatu ongi Salbatoreak!*  
PINTXOAK,  
BOKATAK ETA  
ERRAZIOAK  
948 599 021  
URDAZUBI

**17:00etan** bote luze partida frontoian.  
**18:00etan** txokolatea plazan. 19:00etan herriko gazteen herri kirol erakustaldia.  
**21:00etan** pintxoak plazan denentzat.  
**Ondotik**, Hago Silik eta DJ Infernu.

onari kontzeko, A Toda Madre mariatxi taldearekin dantzaldia. **23:30etik** aitzinera kontzertua Itzal erromeria taldearekin.

### MAIATZAK 16, LARUNBATA

**14:30ean** zikiro jatea Igandea txarangak alaiturik. **Gero**, kalejira herriko karrketan barna. **16:30ean** haurrentzako jokoak. **21:30ean** indaberritzek, o xingar jatea eta giro

### MAIATZAK 17, IGANDEA

**17:00etan** pilota partida frontoian. Xala-Azanza, Mata eta Galarzaren kontra. **19:00etan** Bankako Menditarren kontzertua eta pintxoak plazan denentzat. **Ondotik**, zozketa eta suzko zezena.



Gazteak suziriak pizten. UTZITAKOAK



Herriarrak zikiro jatean. UTZITAKOAK



Ongi pasa bestak!



Erregaien etxez etxeko banaketa

Informa zaituzte!



Ordoki ind. 47, partzela, 31713 Arizkun, Nafarroa  
+34 625 324 423 | energiak@josenea.es




**Gasolindegia**

**Tailer mekanikoa**

**Auto-garbitzua automatikoa**

**Garbitoki autozerbitzua**

- Banaketa uhalaren aldaketa
- Enbragea
- Balaztak
- Olio aldatzea
- Pneumatikoak

Hitzordua telefonoz edo WhastApp bidez:  
**+34 608 791 971**

**Egunero irekita 08:00 - 19:30**

**Speed Queen**  
Ordainketa app-aren bitartez egin daiteke



**PREZIO ONEAN**

N-121-B errep. 72,5 Km-a **Dantxarinea** mugan, Nafarroa  
+34 948 599 090 | administracion@josenea.es

www.josenea.es

# BIOK

EXPERIENTIAL SHOPPING



## GORA URDAZUBIKO

## BESTAKI!



*Harategia*



*Arrandegia*



*Fruta eta barazkiak*



*Edariak*

**BESTETAKO BAZKARIA  
ANTOLATU BEHAR DUZU?  
ZERBAIT FALTA ZAIZU DESPENTSAN?  
USTEKABEKO BISITA DAUKAZU  
ETXEAN?  
OPARI BAT EGIN BEHAR DUZU?**

Zatoz gure supermerkatuetara, asteburuan ere zabalik daude.



IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE

  [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)



## «Beti bada bestetan laguntzeko prest dagoen herriko jendea eta hori aunitz eskertzen dugu»

JANIRE AGERRE URDAZUBIKO BESTA KOMISIOKO KIDEA

**A. Larretxea** URDAZUBI

Batzuk besta egin ahal izateko bertze batzuk egin behar izaten dute lan eta bigarren talde horretakoa da Janire Agerre urdazubiarra. 20 urte ditu eta geldirik egotea gustatzen ez zaion neska gisa aurkeztu du bere burua, «herriko bestak ttiki-ttikitatik ilusio handiz bizi izan dituen beti».

Urdazubiko bestak hitza aditzean bi sentipen etortzen zaizkio burura: «Ilusioa eta gogoak alde batetik, eta urduritasuna eta kezka bertetik. Emozio aski desberdinak, baina aski lotuak elkarren artean».

### Bestak prestatzeko lanak

Kezka hitza aipatu du, izan ere Urdazubiko bestak antolatzen dituen komisioko kidea da bertze lau lagunekin batera: Ane Ballarena, Jokin Etchart, Pablo Irazoki eta Leire Albisu. Iaz sartu zen komisiotan, eta parte hartzaile bakoitza bi urtez aritzen da. Inauteriak eta sagardotegiko bazkaria antolatzen dituzte, baina urteko lanik inportanteena herriko bestak antolatzea izaten dute. «Bestetako otorduak, musika taldeak, udalarekin harremanetan egon eta negoziatu...».



Besta komisioko kide da Janire Agerre.

Lan horiek denak egiteko urtarrilean hasi ziren bilkurak egiten. «Nahiz eta gureak eskualdeko lehendabiziko bestak izan, geroz eta fiteago hasi beharra dugu antolatzen, batez ere musikari lotutako kontuak. Gainera, denborarekin hasiz gero, azken tenorean lasaiago ibiltzen gara», kontatu du Agerrek.

Aurten, bestetako egitarauan aitzineko urteetako eredia segitzen saiatu dira, horrela, «adin guztie-

ongi pasa bestak!

**Patxi Jaurena**

ZURGIN LANAK OROKORREAN  
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI(Na)  
ursunea@gmail.com



**CONSTRUCCIONES  
A. BENGOTXEA**

- Etxebizitzak egin
- Zaharberritze lanak
- Saneamendu lanak
- Obra publikoak
- Zeramika denda



**ONGI PASA BESTAK!**

URDAZUBI  
Tel. 948 599 484 | [www.carrelagesbengotxea.com](http://www.carrelagesbengotxea.com)



**ARRECHEA  
TABAKOAK**

ZIGARRO  
PURUEN CAVA



**TABACOS  
ARRECHEA**

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | [arrechea.estanco@gmail.com](mailto:arrechea.estanco@gmail.com)

tako herritarrentzako» egitaraua osatzen: «Aldaketa igandean izanen da, pilota ondotik Menditarren kontzertua eta pintxoak izanen ditugu, eta bestak finitzeke zozketa bat eginen da». Haurrentzako ekitaldi bat ere berreskuratuko dute aurtengo bestetan: «Udalaren proposamenari baiezkoa eman eta herriko ttikientzat herrian barrena suzko zezenarekin itzulia eginen da». Egitaraua betea dute bestek, eta «ez dago gauza gehiago gehitzeko aukerarik!».

### Herri osoa lanean

Urtarrilean hasi ziren bestak antolatzeko lanetan, eta besta egunetan ere komisioko kideek egin beharreko aunitz izanen dituzte: «Aitzineko egunetan gauza guztiak ongi prestatu, musika taldeen arduratu, txosna kudeatu, antolatu-tako dena behar den bezala doala ziurtatu... Azken finean gu gara arduradunak». Egiteko horiek denak egiteko, ordea, txandak egiten dituzte herriko gazteen artean:

«Nahiz eta herriko bestetan besta egitea denei gustatzen zaigun, lana bada eta ez gutti!».

Gazteak bakarrik ez, herritar guztien inplikazioa behar izaten da bestak egiteko, eta alde horretatik eskertua dago urdazubiarrak: «Orokorrean bestetan gazteek lan egiten dugu, baina beti bada laguntzeko prest dagoen herriko jendea eta aunitz eskertzen dugu». Bestetan bakarrik ez, aitzineko egunetan ere izaten dute laguntza, karpa muntatzen adibidez: «Laguntza guztia ongi etorri izaten da!».

### Bestetako momentu politena

Bestetan gozatzeko prest dago Janire eta egun guztiek «momentu politak» dituzten arren, larunbata, zikiri jate eguna du gustukoena: «Eguerditik plazan izaten den giroa, txaranga, xingar bokatak, kontzertuak... Egun espezialena dela erranen nuke, herri ia guztia elkartzen da plazan eta giro xarmanta izaten dugu egun guztian!».

**SANTIAGO VILLARES S.L.**

Ongi pasa bestak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN

SALMENTA ETA ESPORTAZIOA

LASTOA

LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777

T. (0034) 948 59 91 34

Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com

www.santiagovillares.com

# Ongi pasa bestak!



**30**  
1996 | 2026



Igande eta jaiegunetan zabalik  
Dantxarinea • Ibardin • Behobia • Luzaide

www.venta-peio.com

+34 948 625 130

f peioventa

@venta.peio

ONGI PASA BESTAK!

ORDUTEGI ZABALA  
FAMILIEN BEHARRETARA  
EGOKITZEN GARA  
URTE OSOAN IREKIA

**LANDA**  
Haurtzaindegia

Gure ttikien garapena bermatzen dugu,  
bakoitzaren erritmoa errespetatuz,  
inguru seguru eta goxo bat eskeiniz.

Juan Aguirre, 1 | URDAZUBI | T. (0034) 693 76 49 49

**ETXELEKUA** *ongi pasa bestak!*

ARDI LATXAREN GASNA

**7. AK MUNDUAN**

SALMENTA ZUZENA EGUNERO  
Zugarromurdiako korretera  
948 599 169 - Urdazubi  
www.etxelekua.com

**Mikelen-Borda**  
BENTA - JATETXEA

*Ongi pasa bestak!!*

**GURE BASERRIKO ARATXE HARAGIA SALTZEN DUGU**

Dantxarinea - URDAZUBI  
T. 948 599 045 | www.mikelenborda.com

**URDAZUBIKO UDALAK**

**Urdazubiko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
urdazubiar eta  
bisitari guztiei !**



## «Zikiroa prestatzen ari garen bitartean, herritar aunitz hurbiltzen dira gurekin egotera»

**XEBERO GALARREGI** URDAZUBIKO BESTAZALEA

**A. Larretxea** URDAZUBI

«Urdazubiar aski bestazalea izana». Halaxe aurkeztu du bere burua Xebero Galarregik. Lan ondotik «trankil bizitzea» eta «ortzirale eta larunbatetan lagun artean egotea» maite ditu. Maiatza ate joka dela, bestak noiz hasiko zain dago orain. Gaztea-gozenean, bestak prestatzen eta aldi berean disfrutatzen aritzen zen: «As-teazkenean besta egiten hasi eta igandera arte gelditu gabe egoten ginen, ia etxera sartu gabe». Gaur egun, berriz, «lasaiago bizitzen ditut eta otordu, lagun eta trago artean gustura egoten naiz». Lehen zikiro eguna zuen maiteen «besta» egiten zuelako «eta orain ortzeguneko aperitifa maite dut herritar aunitz elkartzen garelako».

### Zikiroa prestatzen

Bestetan zikiroa erretzen aritzen da Xebero: «Goizean goiz hasten gara dena prestatzen. Ondotik, gosari eder bat egiten dugu indarrak hartzeko. Polita izaten da momentua, herritar aunitz hurbiltzen dira gurekin egotera eta zikiroa ikustera. Momentu aski berezia da, irri aunitz egiten dugu baina suaren beroarekin ere ederki sufritzen dugu!»



Xebero Galarregi zikiroa mozten. UTZITAKOIA

Badaki zein den zikiro ona egiteko sekretua: «Lan talde ona izatea eta txef on bat izatea nagusi, gure kasuan Txomin Amorena». Harekin ikasi zuen zikiroa erretzen eta lehendabizikoz Bargotan aritu zela oroitu du: «Txominek laguntza behar zuela erran zidan, eta horrela hasi nintzen ikasten». Geroztik, batean eta bertean aritzen da, gaur egun inguruko herrietan batez ere: Zigan, Erratzun, Elizondon... «Produktu aski estimatua da zikiroa, jendeak aunitz maite du, piperrada bezaienbertze!».

**FAGOA** *Kirola, kultura eta gastronomia*

**BIZIKLETA ELEKTRIKOEN ALOKAIKURIA**  
**MAILA GUZTIETARAKO IBILBIDEAK**  
**AUTONOMIAN EDO GURE GIDARI BATEK LAGUNDUTA**

+33 785 61 41 13 | fagoa.eu  
info@fagoa.eu | 31711 Urdazubi · Urdax





## EGITARAUA

### MAIATZAK 13, ASTEAZKENA

**12:00etan** txupinazoa eta herriari buelta Baztango Gaiteroekin eta erraldoiekin.  
**15:30ean** haurren pilota txapelketako partidak: 3. eta 4. postuak eta finala.  
**16:30ean** herri kirolak eta aizkora apustua. **Ondotik** haurrendako merienda eta gazteen arteko pilota finala. **18:30etik 20:30era** dantzaldia plazan Beñat eta Fernandorekin. **20:00etan** ezkila jotzea. **21:00etan** baztan zopak karpan. **Ondotik** dantzaldia Beñat eta Fernandorekin.

### MAIATZAK 14, ORTZEGUNA

**09:00etan** diana. **11:00etan** meza nagusia. **12:00etan** herriko dantzarien emanaldia plazan, **ondotik** luntxa.  
**17:30ean** pala eta pilota partidak frontoian. **19:30etik 21:30era** dantzaldia plazan Imuntzo eta Belokirekin. **21:30ean** mutil dantzak. **22:30etik 23:30era** gazte jokoak plazan. **23:30etik 02:30era** dantzaldia plazan Eztitan taldearekin, **ondotik** besta karpan.

### MAIATZAK 15, ORTZIRALEA

**09:00etan** diana baserrietan eta herriko txistulariak herrian barna. **11:30etik 13:30era** haurrendako puzgarriak frontoian, **ondotik** haurren bazkaria karpan. **14:00etan** gazte bazkaria Jauregiartearen eta jubilatuen bazkaria

Olarin. **15:00etatik 18:00etara** haurrendako puzgarriak frontoian. **18:30ean** kalejira erraldoiekin. **19:30etik 20:30era** dantzaldia Iratzar taldearekin. **20:00etan** bokatak afaltzeko guraso elkartearen eskutik. **20:30ean** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **21:30etik 00:30era** Zutik elektrotxaranga. **00:00etan** dantzaldia Iratzar taldearekin plazan. **00:30etik aitzinera** Kota Zero eta Burutik karpan.

### MAIATZAK 16, LARUNBATA

**10:00etan** diana herriko musikariekin. **11:00etatik 13:00etara** kadeteen kopa ziklista. **12:00etan** kalejira erraldoiekin. **13:00etan** fanfarre poteoa plazatik abiatuta. **14:00etan** zikiroa Luzianok alaitua, **ondotik** herriari buelta Elutxa txarangarekin. **20:00etan** bokatak afaltzeko guraso elkartearen eskutik eta dantzaldia Soletikan taldearekin. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **00:00etan** dantzaldia plazan Soletikan taldearekin eta Jonkass DJ karpan. **04:00etatik 07:00etara** Aimar DJ trinketearen.

### MAIATZAK 17, IGANDEA

**12:30ean** kalejira erraldoiekin. **10:00etatik 14:00etara** azoka. **17:00etan** haurrendako ginkana plazatik abiatuta. **17:30ean** mus txapelketa Gizarte Bilgunean. **19:30ean** dantzaldia plazan Joselu Anayak taldearekin.

*Gora Salbatoreak!!*

**Olari**  
Jatetxea Irurita

Erreserbak

948452254

www.restauranteolari.es

**RotuBaztan**  
*Rotulación y diseño*

- Autoak errotulatzea • Lokalak errotulatzea
- Kristalak tindatzea • Seinaleak
- Arropa estanpazioa • Inprimatze digitala
- Bisita txartelak, albaranak, gutunak, etab.
- Eranskailuak eta kartelak personalizatzea
- Olanak • 3D-ko kartel argidunak

660 721 762

rotubaztan@gmail.com

Pol. Ind. Zaldubia 1, 31730 Irurita (Na)

**Arotxa**

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 532 073 | T. 948 581 418

31730 IRURITA

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

**AROTEGIA**  
BURDINA | ALUMINIOA | INOX

**BALKOIAK**  
**TOLDOAK**  
**BURDIN HESIAK**  
**FORJA**  
**AUTOMATIZAZIOAK**

**EM**  
Estimada Mikelperrosena  
ILE APAINDEGIA

Pedro Maria Hualde,  
38 - beheha | IRURITA  
644 941 155  
*Ongi pasa bestak!*

*Ongi pasa bestak!*

Carpintería

**Lizasoain, S.L.**

Erreformak · Leihoak · Ateak · Eskailerak · Armairuak · Sukaldeak  
948452077 · Zaldubia ind. · 31730 IRURITA

**DOARQ**

arkitektura bulegoa  
maite & idoloia danboriena olaetxea  
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

ONGI PASA BESTAK

IRURITA

**BAZTAN MOTOR, S.L.**

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA

JOHN DEERE CFMOTO

**ONGI PASA BESTAKI**  
Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA  
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55

**Construcciones URBALLO, S.I.**

hargin lanak orokorrean

610 367 009  
31730 IRURITA

*Ongi pasa bestak!*

## «Herriko bestetan erraldoiekin batera dantzan ateratzeko ez zaigu inoiz gogorik falta»

IBAN ETXARTE ANTZIZAR IRURITAKO KONPARTSA

R. Oskariz IRURITA

«Igantzi eta Sunbillako odola duen eta Iruritan bizi den lesakarra», halaxe aurkeztu du bere burua Iban Etxarte Antzizarrek. Duela 15 urte joan zen Iruritarat bizitzera eta bertako konpartsako kide da gaur egun.

Bestak gustuko ditu eta aitortu duenez, «Iruritako bestak baino lehen Iruritako garagardo besta ezagutu nuen». Hala ere, «Irurita beti izan da nire herriko bestetako egutegiari hasiera eman izan dion herria. Jendearen berotasunak eta besten inguruan egiten den elkarlanak egiten ditu berezi. Izugarria da jendea nola lotzen den, eta lan horrek ekartzen digu bestetan hainborte gozatzeko aukera».

Noski, sorterriko sanferminak ere gustuko ditu Etxartek, «eta Iruritan zein Lesakan, bezperako egunarekin gelditzen naiz. Hala ere, ezin ditut aipatu gabe utzi Lesakako peñen eguna eta Iruritako zikiro eguna!».

### Erraldoiekin dantzan

Duela bortz urte inguru hasi zen erraldoiekin ibiltzen Etxarte, «partaideak behar zituztelako. Gaur egun gustuko dut dantzan ibiltzea».



Etxarte, behehian ezkerrean. UTZITAKOIA

Historia laburra du Iruritako konpartsak: «pandemiaren aitzinetik bertze herrietatik etorri ziren erraldoiek sorrarazi zuten taldea. Lehenbiziko bisitariak Etxalartik etorri ziren». 2022an, berriz, Pedro eta Rosario sortu ziren, Iruritako lehen erraldoiak. «Antzina herriko ferratzaile ziren familia batean oinarritua» dago erraldoi bikotea. Gaur egun zortzi lagun inguruk parte

**ARKUPE**  
Txokolataak  
-1984-

IRURITA  
Dukesa plaza  
T 948580059  
T 948452021  
(Obradorea)

ELIZONDO  
Santiago kalea 19  
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

**erran.**  
eus  
Mendialdeko Albistek



Duela bortz urte hasi zen erraldoiekin dantzatzen Iban Etxarte. UTZITAKOIA

hartzen dute, «pixkanaka jendea erretiratuz doa baina zorionez gazteek interesa paratu dute eta gogotsu dabilta». Hortaz, historia motzekoa izanagatik, etorkizun handia du Iruritako konpartsak.

Urtero ateratzen dira herriko bestetan, eta horretarako «hilabete bat lehenago hasten gara astean behin elkartzen entseatzeko. Beti zerbait gelditzen zaigu berde samar, eta azkeneko astean entseguak areagotzen ditugu».

Besta egunetan egunero ateratzen dira, «eguraldiak uzten badigu behintzat». Aurten ere ateratzeko gogotsu daude: «gogoa ez zaigu inoiz falta!». Azaldu duenez, konpartsarekin «haurrak» izaten dira protagonista nagusiak. «Hala ere, zenbaitetan helduen begietatik malkoak atera izan ohi ditugu. Malko horiek dira ni betetzen nautenak, zerbait ongi egin denaren seinale».

Herriko bestetatik kanpo, «erraldioen topaketetan parte hartzen dugu eta inguruko herrietan ere laguntzen dugu. Hagitz ongi zaintzen gaituzte denetan, baina bat aipatzekotan, hasieratik gugan konfiantza azaldu duen herria Larrainzar izan da».

Azkenik, «jende gehiago animatu nahiko genuke konpartsan parte hartzera, neskak zein mutilak. Eta gurekin ez daudenek nahi izanen zuten bezala, denek bestak ongi pasatzea espero dugu. Gora Iruritako bestak!».

**«Zorionez, herriko gazteek interesa paratu dute Iruritako konpartsan eta gogotsu dabilta»**

**TEYMO S.L.U.** 

Aroztegi Metalikoa  
Industria-nabeak eta granjak egiten ditugu

Zaldubi ind. IRURITA | T. 948 580 538 | 630 184 847

**OTEIZA** 

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)  
Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia



**MIGUELENE**  
OBRAS Y CONSTRUCCIONES · ERAIKUNTZAK

**Ongi pasa bestak!**

IRURITA | T. 677 225 112

**Gureaut** 

**TAILERRAK**

Mekanika, elektrizitatea,  
mantentze lanak...

Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225  
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com



**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea



**JOXEMI BENGOTXEA**  
Zurgindegia | Egurrak

**Egur salmenta**  
Teilatuak | Fatxadak | Zolak  
Eskailerak | Ateak | Leihoak  
Egurrezko estrukturalak | Altzariak

**660 501 584**  
www.joxemibengotxea.com  
Zaldubia Ind. IRURITA

TELLERIA 7  
IRURITA 31730 · 679228775

**GIZARTE BILGUNEKO OSTATUA**



Astegunetan goizez irekia  
Astertetan itxia  
Asteburuetan egun osoz irekia